

Obrak Lau Haizetan eta Herreran

Azken boladan obrak hasi dira auzoan. Alde batetik, Herreran, etxebizitzak eraikiko dituzte. Bestetik, Larratxo eta Lau Haizeta artean parke publikoa egingo dute.

Sara Soria 943-357037

Egokitze lanak amaitutakoan, Lau Haizeta parkeak 98.000 metro karratu izango ditu, eta Larratxotik igarotzen den autopistaren azpiko tuneletik Lau Haizeta baserriraino zabalduko da. Bertan, haurrentzako jolastokiak eta paseoan ibiltzeko tokiak jarriko dituzte. Horrez gain, bertako errekatxoak eta basoa egokituko dira. Gainera, iturria eta zurezko pasabidea jarriko dituzte erreka ondoan. Horretarako, auzotarrak inguru horretan ziztuzten baratzak desagertarazi egin dituzte, eta jakina, auzoan ez da falta izan gaiaren inguruko esamesarik.



Herreran salmenta libreko 92 etxebizitza eraikitzen ari dira.

Herreran 92 etxebizitza

Herreran, bestalde, Rutilita izeneko lantegia zegoen tokian, dagoeneko lurragi mugitzen hasi dira. Bertan sal-

Lau Haizeta parkeak 98.000 metro karratu izango ditu

menta libreko 92 etxebizitza eraikiko dituzte, eta bakoitzak 3 logela eta terraza ederra izango ditu, besteak beste. Etxebizitzok garesti salduko dira. Beraz, Rutilita lantegi zaharra gaztetxe egiteko okupatu zuten gazteak kezu dira. "Proiektua azkartu egin zen gu han ginelako. Sei hilabete egon ginen bertan, ondoren kanporatu egin gintuzten. Kanporatu eta berehala, lantegia eraitsi egin

zuten. Orain, Rutilitan 92 etxebizitza garesti eraikitzen hasi dira. Zalantzarik gabe, etxeon salmentatik etekin handiak lortuko dira", jakinarazi digute Gazte Asanbladako kideek.

Gudari buruzko erakusketa


Hilaren 6tik 16ra, "Guda" izeneko erakusketa egongo da ikusgai Casares kultur etxean. "Mugarik Gabe" Gobernu Kanpoko Erakundeak antolatu du erakusketa.

Eurohitzaldia

Hilaren 14an Eurohitzaldia antolatu da Casares kultur etxean. Hitzaldia 19.30etan hasiko da.



IÑAUSTI



TELEFONOA:
943 313 933

IÑAUSTI

JANGELA ZABALAK ETA ENPRESA BILERAK EGITEKO ARETOAK

GOIZEKO 7ETATIK IREKITA

GOSARIAK, PINTXOAK, OTARTEKOAK.

EGUNEROKO MENUA:
(10 plater aukeran) 1.200 PEZETA

MENU BEREZIAK: 3.000 PEZETA

APARKALEKU ZABALA.
LARUNBATETAN EGUN ERDIZ IREKITA.

ZUATZU KALEA 4
(EASO ERAIKUNTZA 2 ETA 3 LOKALAK)
20018 DONOSTIA

MARCOS



Okindegia eta etxeko gozoak

Ubarburu P., 4-5 pabiloiak • 27 Industrialdea
Tel: (943) 45 09 66 • ASTIGARRAGA